Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina hein batean aldatzen duen Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Foru lege honen xedea da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina aldatzea, 2015etik 2018ra bitartean jasotako amatasun eta aitatasun prestazioengatik 2020an soilik aplikatuko den kenkari berri bat legean sartzeko. Horrela, laguntza eman nahi zaie 2015 eta 2018 bitartean seme-alabak izan eta amatasun eta aitatasun prestazioak salbuetsita izan ez zituzten familiei.

68. quater artikuluan ezarritako kenkariaren antzera, kenkaria zergaren kuota diferentzialaren gainean aplikatzen da, hau da, subjektu pasiboari oso-osorik itzul dakioke PFEZren 2020ko kuota diferentziala zero edo negatiboa denean, eta modu berean zehazten da. Nolanahi ere, salbuespen hau egiten da: 2015etik 2018ra bitartean jasotako amatasun eta aitatasun prestazioen gainean aplikatzen da. Hala, subjektu pasiboek jasotako prestazioei 100eko 25eko ehunekoa aplikatuko zaie eta emaitza hori izanen da kenkaria, baldin eta subjektu pasibo horien errentak, salbuetsiak barne, 30.000 euro baino handiagoak ez badira. Ehuneko hori murrizten joanen da subjektu pasiboaren errentak handitu ahala eta zero izanen da errentak 105.000 euro baino goragokoak badira. 68. quater artikuluko kenkariarekin gertatzen den bezala, kenketa izateko eskubidea ematen duten prestazioak etor daitezke Gizarte Segurantzatik, aurreikuspen sozialeko mutualitateetatik edo funtzionarioen mutualitateetatik.

Era berean, aurreikuspena ezarri da, kenkaria PFEZn atxikitako edo atxiki gabeko amatasun eta aitatasun prestazioen gainean soilik aplikatzeko. Kautela beharrezkoa da, amatasun eta aitatasun prestazioen tributazioa sortzen ari den auziagatik, epaitegiren batek noizbait aipatutako prestazioak salbuetsi behar direla erabaki baitezake. Horretaz gainera, gerta daiteke familiaren batek zergak 2020an Nafarroan ordaindu behar izatea eta aurreko urteetan araubideko komuneko lurralderen batean edo Euskal Autonomia Erkidegoan zergak ordaindu izana eta, orobat, seme-alabak 2015etik 2018ra bitartean eduki izana. Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko araudiari jarraikiz, amatasun eta aitatasun prestazioak salbuetsita zeuden garai haietan eta, ondorioz, familia horiek ezin izanen dute aplikatu hogeita bederatzigarren xedapen gehigarrian araututako kenkaria.

Proiektu hau prestatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 129. artikuluan ezarritako arauketa onaren printzipioak hartu dira kontuan. Hala, foru lege honek bere xedeetan dauden behar eta eraginkortasun printzipioak betetzen ditu, tributuak aldatzeko ez baitago legeak aldatzea ez den beste aukerarik, tributu-esparruan indarra baitu lege-erreserbak. Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 25. artikuluan aipatzen da erreserba hori.

Foru Legea berea, bai hura prestatzeko prozedura eta gainerako arauetan izanen dituen ondorioak, Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Ogasunaren webgunean argitaratzeak gardentasun eta irisgarritasun printzipioak errespetatzea dakar berekin.

Era berean, kontuan izan da gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasun printzipioa eta aldaketak egin dira arauan hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiltzeko xedez.

Foru legeak artikulu bakarra eta azken xedapen bat ditu.

Artikulu bakarra. 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategineko hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria aldatzea. Ondorioak 2020. urtean izanen ditu.

“Hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. 2015etik 2018 bitartean jasotako amatasun eta aitatasun prestazioen kenkaria.

1. Dagokion kuota diferentziala finkatu ondoren, amatasun edo aitatasun prestazio publiko bat jaso duen subjektu pasiboak, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren II. tituluko VI. eta VII. kapituluetan araututa daudenak, 2019ko martxoaren 7an indarrean zegoen idazketaren arabera, 2015, 2016, 2017 edo 2018ko zergaldietan, 2020ko zergaldiari dagokion pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpenean, zenbateko hau kendu ahal izango du: prestazioaren zenbatekoari ondorengo letretan ezarritakoaren arabera dagokion ehunekoa aplikatzearen zenbatekoa.

a) 30.000 euro arteko errentak dituzten subjektu pasiboak: 100eko 25.

b) 30.000 euro baino gehiagoko errentak dituzten subjektu pasiboak: 100eko 25, subjektu pasiboak 30.000 eurotik gora duen errenta-soberakina adierazten duen proportzioa 10ekin biderkatzearen emaitza kenduta.

Emaitza gisa lortzen den ehunekoa bi dezimaletara biribilduta adieraziko da. Emaitza negatiboa baldin bada ehunekoa zero izanen da.

2. Kenkariaren ehunekoa zehazteko, kontuan hartu beharko dira subjektu pasiboaren errenta guztiak, salbuetsiak barne, 2020ko zergaldiari dagozkionak.

3. Kenkari hau ere aplika dezakete:

a) 2015, 2016, 2017 edo 2018ko zergaldietan 1. apartatuan ezarritako egoeren antzeko prestazioak jaso dituzten enplegatu publikoek, Gizarte Segurantzaren ordezko gisa jarduten duten araubide publikoetatik edo mutualitateetatik datozenek.

b) Beren konturako langileen edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian sartuta ez dauden profesionalek, baldin eta 1. apartatuan ezarritako egoeren ondoriozko prestazioak jaso badituzte 2015, 2016, 2017 edo 2018ko zergaldietan, Gizarte Segurantzako araubide bereziaren ordezko gisa jarduten duten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateetatik.

c) 2015, 2016, 2017 edo 2018ko zergaldietan 1. apartatuan aurreikusitako egoeren berdin-berdinak direla-eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen prestazioak jaso dituzten kooperatibetako bazkide langileek.

4. Kenkariaren oinarriaren muga Gizarte Segurantzak dagokion kontzeptuagatik aitortzen duen gehieneko prestazioaren zenbatekoa izango da.

5. Kenkaria aplikatu ahal izanen zaie pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari lotuta dauden eta salbuetsi ez diren amatasun edo aitatasun prestazioei soilik”.

Azken xedapena. Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.